



# Euskararen Etxea

## *Ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko proiektua*

Aurre ezagutza aktibatu! **Irakaslearentzako gidoia. Ariketa honek ikasleen artean hausnarketa bideratzea du helburu. 45-60' saioa aurreikusten da.**

- Azaldu zure ikasleei zein den ariketaren helburua. Banaka jarri itzazu eta eman bakoitzari orri zuri eta arkatz/boligrafo bat.
- Esaiezu koadro handi bat marrazteko orrian eta lau zati berdinetan banatzeko. Koadroaren kanpoan, goiko partean, ezkerreko partean *euskara* hitza idatzi beharko dute eta beste aldean ,eskuman, *erdara* hitza. Koadroaren kanpoaldean, ezkerrean, goiko zatian *Ni* hitza idatziko dute eta aldiz, beheko zatian, *Ikastetxea*.

	Euskara	Erdara
Ni		
Ikastetxea		

- Gidoiari jarraituz, galdera desberdinak egin ikasleei. Hauek, erantzuna (hitz gakoa, galderan egiten dena) koadroaren alde batean edo bestean idatzi beharko dute.

### Galderak:

#### Norbera: Lehen lerroan erantzun beharrekoak:

- Zein hizkuntza erabiltzen duzu familiarekin?
- Lagunekin?
- Kanean?
- Eskolako patioan?
- Kiroldegian?
- Gelan?
- Autobusean?
- Eskolaz Kanpoko Jardueretan?
- Jantokian?



### Ikastetxea: Bigarren lerroan erantzun beharrekoak:

- Zein hizkuntza erabiltzen da gehien eskolako patioan?
  - Kiroldegian?
  - Gelan?
  - Autobusean?
  - Eskolaz Kanpoko Jardueretan?
  - Jantokian?
- Galdera guztiei erantzun eta gero, jarri ikasleak bikoteka. Eman 5 minutu beraien artean erantzun dutena komentatzeko eta konparatzeko. Lagungarriak izan daitezkeen galderak: *Zer erantzun duzue galderetan? Zergatik? Erantzunak errepikatzen dira? Ez? Zergatik?*
- Laukoteak egin oraingoan. Prozedura errepikatu, hau da, erantzunak komentatu eta konpartitu ditzatela.
- Azkenik, talde handian, erantzunak komentatu eta galdera bakoitzaren ondoan dagokionean *euskara* edo *erdara* idatzi. Komentatu diren erantzunekin, ateratzen dituzuen ondorioak idatzi itzazue. Gogoratu azken prozedura honetan norberaren hizkuntza ohituretan baino, ikastetxeko ohituretan zentratu nahi dugula.
- Bukatzeko, gaiarekin kontzientzia hartzeko, talde txikietan lanean aritu direnean erabili duten hizkuntzaren inguruan galdetuko diegu. Erdara den kasuan zergatia aztertuko dugu.
- Bigarren fasean egingo den lanketari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, fase hau garatzea gomendatzen da eta bertatik jasotako ondorioak Azkue Fundaziora helaraztea komeni da: [bisita@euskararenetxea.eus](mailto:bisita@euskararenetxea.eus)

### ONDORIOAK LANTZEKO ILDOA

- Zein da ikastetxean orokorrean nagusitzen den hizkuntza?
- Zergatik?
- Esparru guztietan nagusitzen da ala bakar batzuetan? Zeintzuetan?
- Zergatik?
- Ondorioak: